

Aztergai dugun espezie honekin, landare-familia berri bati hasiera emango diogu. Liliazeoen familia honen ezauzgarri nagusitariko bat, sustrai tuberrifformeak, errizomak eta erraboiak izatea da. Zenbaitetan landare

J. Terés



igokariak izaten dira. Belarki bizikorrak eta zuhaizka-itxurako muluak nekez azaltzen dira. Batzuetan, hosto murrizak dituzte, eta hauen ordeztu hosto-itxurako zurtoin-zati lautu eta berde batzuk, kladodio izenekoez, funtzio klorofilikoa betetzen dute. Loreak gehienbat hermafroditak dira. Bere baitan

280 bat genero eta 4.000 espezie inguru hartzen ditu. Adibidez, tulipanak, baratxuria, tipula edo esparragoak.

Bestalde, aztergai dugun *Ruscus* generokoak, belarki bizikorrak edo zuhaiskak izaten dira, eta European 3 espezie inguru aipatzen dira. Euskal Herrian berriz, aztergai dugun erratza besterik ez dago.

Berez erratza mulua da, gora 1 m edo gehiago haz daitekeena. Zurtoin zurrunak, berde ilunak eta goialdean adartsuak ditu. Kladdioak berriz, obatu eta lantzeolatu bitartekoak ditu eta mutur zorrotzaz bukatzen dira. Loreak oso txikiak dira (eta batere ez deigarriak). Martxotik maiatza bitartean azaltzen dira. Fruituak, udazkenean eta neguan heltzen dira, eta baiak biribilak, kolore gorri bizikoak eta oso deigarriak izaten dira.

Banaketari dagokionez, lurralde osoan nahiko ondo ordezkaturik dagoela esan behar dugu, eta hainbat motatako basoetan artadi, karraskal, harizti eta abarretan landare tipikoa dugu erratza. Halaber zenbait sastrakaditan.

Erratz latzak egiteko erabili izan da (tximiniak garbitzeko, esate baterako) eta sendabelartzat hartu izan da, gosegarria eta diuretiko delat diotelarik.



* Naturalista

Arraskalatximini erratza

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOA Erratza

Familia:	liliazeoak
Espezia:	<i>Ruscus aculeatus</i>
Banaketa:	lurralde osoan ondo banandua
Habitata:	baso eta sastrakadietan
Sendabelarra:	bai

